

AUTOKONTZEPTUA ETA ESKOLA INPLIKAZIOA HAUR LITERATURAREN BIDEZ

Tesiaren egilea: Nagore Arbaiza Lekue

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila/Institutua: Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Saila

Doktorego-programa: Psikodidaktika: Hezkuntzaren psikologia eta berariazko didaktikak

Jakintza-arloa: Psikologia

Tesi-zuzendaria: Xabier Etxaniz Erle eta Arantzazu Rodríguez Fernández

Tesiaren laburpena:

Autokontzeptua haurtzaroan garatzen hasten den aldagaia da, izaera multidimentsionala duena. Aldagai hau aspaldi izan da psikologiaren interesgune, baina 80ko hamarkada arte ez da agertuko Hezkuntzaren Psikologiaren legezko oinarri bezala (Mori, 1989, Ruiz, 2002an aipatua). Markusek (1977, Bower, 1983an aipatua) autokontzeptua, egestura kognitibo egituratu bat bezala definitzen du, norbanakoaren bizitza-esperientziaren ondorioz sortzen dena, eta eskola-inplikazioarekin harreman zuzena duena (Clark, 1963; Marston, 1968; Tannenbaum eta Witty, 1967).

Tesian zehar, autokontzeptuaren egesturaren inguruko teoriak izandako garapena aztertuko da, hasierako ikuspuntu unidimentsionaletik (Coopersmith, 1967, Rosenberg, 1976), gaur egun aldarrikatzen den eredu multidimentsional hierarkikora ailegatuz (Shavelson et al., 1976). Ikuspuntu multidimentsionalak bi multzotan aurreikusten du autokontzeptua: pertzepzio akademikoaren multzoa eta pertzepzio ez-akademikoak jasotzen dituen; horiek arlo sozial, emozional eta fisikoan egituratuta daude.

Shavelsonen eta kolaboratzaileek (1976) aipatutakoa da tesi honek kontuan hartuko duen teoria eta horren inguruan eraikiko da Lehen Hezkuntzako haurren autokontzeptu multidimentsionala neurtzeko erreminta, adin horretako haurren autokontzeptuaren barne-egituraren proposamena eginez, eta aldi berean, eskola-inplikazioarekin duen harremana aztertuz, bi aldagai horietan eragiteko esku hartzea proposatuz.

Tesi honek bilatzen du izaera teorikoa duten gaiak argitzea eta baliabide psikometrikoak eskaintzea, eta horietan eragiteko esku-hartzea proposatzea. Esku-hartzeak erabiltzen duen haur- eta gazte-literaturari dagokionez, azpimarratu beharra dago bizi garen mundu honetan une oro egin behar dugula errealitatera egokitzeko esfortzua, geroz eta zorrotzagoak diren egoerei aurre egiteko. Hori dela eta, sormena ezinbesteko erreminta bilakatzeko da, norberaren nortasun eta garapen profesionalean eragiteko (Justo eta Martinez, 2009).

Ikerketaren metodoari dagokionez, lehenengo helburuak —LHko autokontzeptua neurtzeko instrumentua ekartzea— ikerketa instrumentala ekarri du. Horrekin batera aldagaien azterketa deskriptiboa eta harreman transbertsala aztertu da, atzera begirako ez *post facto* batekin konbinatuz. Orokorrean erregresioak erabili dira (Montero eta León, 2002), eta horrela ezagutu da autokontzeptuaren eta eskola inplikazioaren arteko harremana. Gainera, esku-hartzearen eraginkortasuna neurtzeko ikerketa kuasi-esperimentalak ekarri du.

Eraitzen azterketari dagokionez, proba parametrikak erabili dira, proba horiek balizko normaltasunaren urratzeari aurre egiteko behar bezain indartsuak direlako (Edgell eta Noon, 1984; Chok, 2010; Montilla eta Krorey, 2010; Schmider et al., 2010).

Ikerketa honek gaur eguneko teoria zientifikoei ekarpena egiteko asmoa izan du, hala nola Lehen Hezkuntzako garaian autokontzeptuaren barne-estruktura eta horren neurgarritasuna aztertu eta egiaztatzea. Ekarpen aipagarri hauek egin dira, besteak beste: LHko autokontzeptu multidimentsionala neurtzeko erreminta zuhurra, Shavelsonen eta kolaboratzaileen (1976) eredu oinarrituz; LHko autokontzeptuaren estrukturaren ezagutza; autokontzeptuak eta eskola-inplikazioak duten harremana aztertzeko eta haur- eta gazte-literaturaren eraginkortasuna frogatzea.